

Euskal Ikasketak

Gradu Amaierako Lana

Emakumezkoen mintzoaren azterketa
Joakin Altzibarren *Grand Tour*
antzerki obra oinarri

Ikaslea: Eider Etxeberria Soria

Tutorea: Blanca Urgell Lázaro

2019/2020 ikasturtea

Letren Fakultatea - Euskal Ikasketak

Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena

Lan honen helburu nagusia emakumezkoen hizkera aztertzea da; horretarako Joakin Altzibar Jauregik 1772an idatzitako *Grand Tour* izeneko antzerki obra izan dut oinarri nagusi. Izan ere, antzerki obra horretan emakumezko hiru pertsonaia ageri dira eta hori dela eta, Joakin Altzibarrek emakumezkoen hizkera nolabait islatu zuelakoan, pertsonaia horien hizkeran hainbat hizkuntza-ezaugarri bilatu, aztertu eta neurtu ditut eskura dagoen bibliografia eredu izanik.

Emakumezkoen hizkeraren azterketa hizkuntzan oinarriturik oraindik hasikinetan dago euskal hizkuntzalaritzan, nahiz Blanca Urgellek abiatu zuen 2019an lehenbizikoz euskal emakumezko idazleen bilaketa eta emakumezkoen mintzoaren bilaketa euskal testuetan. Alabaina, munduan barrena jarriz begirada alor hau aztertuxeago dagoela ikus daiteke; horren aitzindari genuke Robin Lakoffen 1973ko lana, zeina lan honen analisirako eredu eta gida nagusia izan den. Lakoff (1973) lanaren ildotik beste hainbat ikerketa egin dituzte munduko hizkuntzalariek, eta horretarako ahozko hizkera islatzen duten testu eta grabazioak hartu dituzte lagin gisa.

Ahozko hizkera nola edo hala islatzen duten testu-generoen artean antzerkigintza ikerlerro honetarako baliabide erabilgarria da, besteak beste, ahoz antzeztuko den obra bat izanik, idazleak ahozko eguneroko hizkera, edo behintzat hortik nahikoa gertu dagoen hizkera eredu bat islatzeko ahalegina egiten duelako. Euskaraz antzerkigintza hizkuntza tradizio handiekin alderatuz berandu garatu bazen ere, XVIII. mendeko hiru antzerki obra iritsi zaizkigu: lan honen oinarri den *Grand Tour* antzerki obra, Muniberen *Borracho Burlado* eta Barrutiaren *Acto para la nochebuena (Gabonetako Ikuskizuna)*. .

Grand Tour antzerki obrako emakumezkoen hizkeraren analisia aztergai duen lan honetarako, beraz, Muniberen eta Barrutiaren antzerki obrak erabili ditut erkaketa txiki bat eginez, kontuan izanik bi hauetan emakumezkoen gain gizonetzkoak ere agertzen direla. Hala ere, beste baliabide batzuk ere izan ditut eskura, besteak beste, *OEH* eta *Klasikoen Gordailua*. Analsiari dagokionez, bost hizkuntza ezaugarri garatu ditut: partikula betegarriak eta interjekzioak, kalifikatzaileak, txikigarriak, erlijioarekin lotutako esamoldeak eta galdera erretorikoak.

Alabaina, euskaraz ildo honetan aurretik lanik egin ez izanak zailtasunak sortu dizkit; bestalde, laginak berak ere mugak dituela ikusi dut, *Grand Tour* obran hiru emakumezko ageri baitira, baina gizonetzko pertsonaia bakar bat ere ez. Bestalde, ahozko generoa den arren antzerkigintza, erlatiboki baino ez du islatzen ahozko eguneroko hizkera. Gainera, gizonetzko batek idatziriko obra izanik, eta barregura sortu nahiz egindakoa, baliteke emakumezkoen hizkera islatzen saiatu nahian, hizkera bera desitxuratu edota fidelki islatu ez izana.

Aurkibidea

Laburpena.....	2
1. Emakumearen mintzoa	4
1.1. Ikerlerroaren historia laburra.....	4
1.2. Euskara eta emakumearen mintzoaren ikerketa.....	6
2. Lanaren helburua eta metodologia.....	10
2.1. Lanaren helburua	10
2.2. Lanaren metodologia.....	13
3. Azterketa	16
3.1. Partikula betegarriak, interjekzioak	16
3.2. Kalifikatzaileak.....	17
3.3. Txikigarriak.....	21
3.4. Erlijioarekin lotutako esamoldeak.....	23
3.5. Galdera erretorikoak.....	24
4. Ondorioak.....	25
Bibliografia.....	28

1. Emakumearen mintzoa

1.1. Ikerlerroaren historia laburra

María Alejandra Regúnagak bere *Variación según el género en el habla Santarroseña* (2004) tesian aipatzen duen bezala, munduan barrena antzinateko zibilizazioen garaietatik “gizonen hizkera” eta “emakumezkoen hizkera” bereizi izan dira, bai eta Erdi Aroan eta Errenazimenduan hizkera maskulinoaren eta femeninoaren inguruko behaketak egin eta literaturan hainbat egilek euren iritziak islatu zituzten (Regúnaga, 2004: 9).

Generoaren inguruko hausnarketak sakondu ahala, haren eragina antzematen hasi ziren hainbat alorretako adituak. Metodo zientifikoa sortzearekin batera, giza zientzietan ere bereizketa hori baieztatzen hasi ziren (Regúnaga, 2004: 9). XVII. mendetik jadanik antropologian hitzun maskulino eta femeninoen bereizketa egiten zuten: “lo que los exploradores han denominado *lenguaje del hombre y lenguaje de la mujer* alude a diferencias fonológicas, morfológicas, sintácticas y léxicas, producto de la elección motivada por el género, de determinada forma lingüística” (ibid.).

Antropologoek honak ondorioak izan zituen, besteak beste, soziolinguistikako lanabesetan, bai eta oinarritzko kontzeptuetan ere: “el aporte de los antropólogos condujo a prestar atención al modo en que las sociedades humanas utilizan el género como categoría social, y al hecho de que las diferencias lingüísticas se relacionan directamente con la estructura social, a la que re-crean y perpetúan” (Regúnaga, 2004: 9).

Dialektologia beti izan arren generoaren araberako ezaugarriekiko sentibera, garaiko metodologia zela eta hautatzen ziren hiztunen hizkera “purua” izan behar horrek eraginik, ez zen emakumeen eguneroko hizkera espontaneoaren inguruko informazioerik ikertu (Regúnaga, 2004: 10). Regúnagaren arabera, dialektologoek bildutako laginetan emakumezkoak ordezkaturik ez daudenez, ezinezkoa da aztertutako komunitateetan dagoen aldakuntzari buruzko datu eztabaidaezinak izatea: “También impidió una adecuada representación de las mujeres en el análisis dialectológico el hecho de que la mayoría de los investigadores de campo hayan sido hombres” (ibid.).

XX. mendean soziolinguistikaren hizkuntzaz kanpoko faktoreak kontuan hartu eta ikerketa eremu egokia ezarri ahal izan zuten. Azkenik, feminismoaren bultzadak generoaren inguruko analisi sistematikoak abiarazi zituen, ikuspegi feminista kritiko batetik:

La Sociolingüística, desde sus comienzos, ha prestado extensa atención a la heterogeneidad del lenguaje en correlato con determinadas variables extralingüísticas: la procedencia geográfica del hablante (variación diatópica), su inserción en la escala social (variación diastrática), el segmento etario al que pertenece (variación diacrónica), los estilos y registros utilizados (variación diafásica). Sin embargo, la variación condicionada por el género recién se

constituyó en un campo de análisis sistemático bajo la influencia de la crítica feminista. (Regúnaga, 2004: 11).

1970etik aurrera ugalduko dira hizkuntzalaritzan generoaren araberako hizkeren buruzko analisi eta ikerketak. Lehenago ukitu gabeko gai bat zena edo gai orokorragoen barruan azpigai bat balitz bezala aipatzen zena, hizkuntzen ikerketan duen garrantzia eta lekua hartzen hasi zen. Ordutik, Robin Lakoffen *Language and Women's place* (1973), Marye Ritchie Keyren *Male/Female Language* (1975) edo Barrie Thorne eta Nancy Henleyren *Language and sex: Difference and Dominance* (1975) bezalako liburuak argitaratu zituzten estatubatuarrak, alor honen aitzindari izango direnak.

Bakarne Altonaga Begoña historialariak azaltzen duenez:

Generoaren historia emakumeen historiaren berrikuspenetik sortu zela esan daiteke. 60. hamarkadan historia sozialak ekarri zuen berrikuntzetako bat urteetan zehar historia klasikoak baztertu izan zituen subjektuak gehitzea izan zen. Subjektu horien artean emakumeak agertzea oso garrantzitsua izan zen. (Altonaga, 2018: 108).

Altonagak salatzen duen bezala, “emakumeak historia liburuetatik sistematikoki baztertuak egon izanak historia beraren desitxuraketa suposatu zuen” (Altonaga, 2018: 108-109). Hartara, 80ko hamarkadara arte itxaron behar izango dugu feminismoaren indartzearekin batera “emakumeen historiaren mugen inguruko hausnarketak” sortu eta sakontzeko.

Euskarari dagokionez, hizkuntzalaritza klasikoaren bideak jorratu dira azken hamarkadetan; alabaina, oraingoz dakidalarik ez dira hizkerak generoaren eragina kontuan hartuz ikertu, ez eta konparaketa xeherik egin bi generoen artean hizkuntzan oinarriturik. Lan dialektologikoetan ere ez da, oker ez banago, generoaren araberako analisirik egin hizkerak bereizten edo ezaugarritzen dituzten deskribapenen barruan.

Hutsuneak, beraz, handiak dira, nahiz eta azken urteetan hasi diren alor honen inguruko galderak pilatzen eta ikertzeko beharraz ohartzen. Horren erakusle dugu Blanca Urgellek 2019an egindako “Bizenta Mogel ez dago bakarrik, baina oso bakarrik dago: generoaren irudikapena Euskal Filologian” lana, hain zuzen, The Victoryan Society-k antolatutako eta Gasteizko Letren Fakultatean 2019ko otsailak 5ean burututako *Genero irakurketen lehen topaketak. Maskulinitatea eta feminitateak artean* izenburudun jardunaldietan aurkeztua. Lan horrekin euskal corpusa osatu duten emakumeen izenak azalartzea izan zuen helburu, bai eta emakumeen hizkuntza corpus historikoan aztertzeke aukerarik ba ote zegoen galdera mahai gainean jartzea.

Hala ere, Euskal Herriko emakumeen hizkuntzari buruzko eta generoaren eraginez emakumeen mintzairan ageri diren ezaugarrien inguruko bibliografia zuzenik ez dago euskararen kasuan. Munduko zenbait hizkuntzatan egin diren ikerketak baliagarriak diren eta eredu izan daitezkeen arren, arloaren sakontasuna eta konplexutasuna aintzat hartuz, informazio bilketa gehiagoren beharra dago, eta horrekin batera, jakina, azterketa zehatz baten beharra.

Hainbat ikerlan gizonezko eta emakumezkoen hizkeren arteko konparaketan oinarritzen da, bai grabazioak erabiliz (horren adibide genuke James Broadbridge-ren (2003) ikerlana, non bi gizonezkoren eta bi emakumezkoren arteko bat-bateko elkarrizketa baten grabazioa darabilen, ondoren analisi zehatz bat egiteko), baita bestelako bideen bitartez ere: esaterako, Khoirul Umami Mazidah-ren (2013) ikerketa genuke adibide, hain zuzen ere, Margaret Thatcher Lehen Ministroaren hizkera islatzen duen *The Iron Lady* (*Berunezko dama*) filma darabilena lagin moduan.

1.2. Euskara eta emakumearen mintzoaren ikerketa

Euskararen historian emakumearen hizkeraren presentzia aurkitu nahi izanez gero, nora jo behar dugu? Emakumeen mintzoaren oihartzunak aurkitzea ez da uste bezain erraza euskal corpusean. Izan ere, idazle femeninoak gutxi eta ezezagunak izateaz landa, euren presentzia ere, alegia, euren ahotsa apaldua izan da. Blanca Urgellek (2019) egin du, batetik, euskal emakumezko idazleen azterketa, eta bestetik, haien mintzoaren bilaketa testuetan. Urgellek azaldu zuen bezala, Bizenta Mogel hartu izan da salbuespen nagusizat. Hala ere, Urgellek eginiko emakumezko euskal idazleen bilaketan horietarik hainbat azaleratu ditu. Honelaxe adierazi zuen Urgellek jardunaldietan:

Emakumezkoek 1900 arte euskaraz utzi dituzten lekukotasun idatziak biltzeak baditu bere lanak. Hasteko, jakina, izengabeak diren hainbat eta hainbat idatziren egileak, besterik adierazi ezean, jakintzat ematen da gizonezkoek eginak direla. Baliteke hala izatea ehuneko gora batean, alfabetatze tasen arabera gutxik baitzekiten idazten (...), baina corpusean sartu diren emakumeak eta euren nolakoak ikusirik, baliteke baten batean hala ez izatea, noski.

XV. mendetik hasita eta XIX. mendera arteko emakumezko idazleen artean horrelako hamasei aurkeztu zituen Urgellek, gehienak euren izen-abizenekin. Urgellek dioenez, emakumezko idazleek erabili hizkera aztertzea konplexuagoa da; izan ere, orainoz ez dugu eskura tresna argirik ezberdin idatzi ote zuten aztertzeko. Hala ere, emakumezkoen mintzoaren bilaketa bat egitea egingarriagoa da, baina horretarako ahozko hizkera gertuagotik islatzen duten testuak bilatu behar dira. Halaber, emakumezko pertsonaiak euskal literaturan ere ez dira horrenbeste 1900 baino lehenago.

Munduan zehar jadanik aztertzen hasiak dira hainbat hizkuntzatan emakumezkoen eta gizonezkoen hizkerak, alegia, generoaren araberrako hizkera bereziak aztertu dituzte, gizonezkoen eta emakumezkoen heziketa eta egoera soziala dela eta, aurkitu baitute hizkera ere ezberdin ekoizten dutela. Bakoitzari dagozkien ezaugarriak hizkeran nola islatzen diren ikertu dituzte, ezaugarri horien zerrenda egin dute eta genero bakoitzean zeintzuk erabiltzen diren neurtu dituzte. Euskararen kasuan, arreta txikia jarri zaio orain artean gai honi, baina hizkuntzaren inguruan dugun ezagupenean sakontzeko garrantzitsua da gai honi heltzea, honetaz kezkatu diren munduko hizkuntzalarien eredia jarraikiz.

Euskaraz ahozko hizkuntza islatzen duten hainbat testu mota ditugun neurrian, aipagarriak dira gutun pribatuak. Alde batetik, beren balioa ukalezina da bai filologikoki, baita, besteak beste, ahozko hizkerarekiko duten gertutasuna dela eta, bestetik, jarraian

azalduko dudan puntuan ageri den bezala, emakumezkoen mintzoaren isla ere badira, agertu diren gutun pribatu horietarik hainbat emakumezkoek idatziak baitira. *Le Dauphin* itsasontzi bahituan agertutako gutuneria genuke euskararen historia aztertzeko baliabide aberatsa. Manuel Padilla-Moyanok (2015) 1957ko otsaila eta apirila bitartean datatuak diren gutun horiek izan ditu aztergai.

Padillak azaldu bezala, gutun pribatuek balio handia dute edozein hizkuntzaren historia ikertzerakoan. Gainera, balio hori hazi egin da hizkuntzalaritzan azken urteetan; izan ere, hizkuntzaren eta beste hainbat datu historikoren inguruko informazio oso garrantzitsua eskaintzen dute:

Lekukotasun edo iturri mota diferenteei doakienean, dokumentu pribatuek sekulan baino arreta handiago jasotzen dute hurbiltze diakronikoaz lan egiten duten ikertzaileengandik. Besteak beste, dialektologia, soziolinguistika, pragmatika, diskurtsoaren analisia, alfabetatzea, literatura edo kulturaren historia bezalako adarretan —hizkuntzari lotuak baizik ez aipatzearen— aitzinamenduak egin dira, eta egiten, dokumentu pribatuen ikertzeari esker. (Padilla-Moyano, 2015: 46).

Padillak artikulu honetan gogora ekartzen du Koch & Oesterreicher-ek (1985) proposatu kontzeptualizazioa. Hain zuzen, “bitartea” eta “testuaren sortzapen linguistikoa” banatzen dituzte: alde batetik, bitartekoa ahozko hizkuntza edo idatzizkoa izango da; bestetik, sortzapen linguistikoari dagozkio testuaren hurbiltasuna (ahozkoa, informala, ez-planifikatua) eta distantzia (jasoa, formala, planifikatua). Hala ere, Padillak azaltzen duen bezala, “denbora, espazioa, gauzatze pribatu edo publikoa bezalako faktoreek ere moldatzen dute testuaren sortzapen linguistikoa.” (Padilla-Moyano, 2015: 47).

Kontzeptualizazio honen arabera gutun pribatuak ahozko hizkeratik beste edozein idazki mota baino hurbilago daude:

Helburu pribatuz ekoitzi testuak, eta oroz gainetik gizarte maila apaleko egileenak, aiseago urruntzen dira preskripziotik edo estilo eta errejistro landuek ekartzen ohi duten distantziatik. Ahantzi gabe hein batean distantzia ere osagai dutela —hala zenbait adierazpide kodeturen erabilpenaren nola denbora eta espazioarekiko aldearengatik—, gutunak beste zein-nahi idazki mota baino hurbilago dirateke hizkuntza mintzatutik. (Padilla-Moyano, 2015: 47).

Manuel Padilla-Moyanok artikuluan zehar azaltzen du *Le Dauphin* itsasontziko gutunek informazio soziolinguistiko “interesgarria” eskaintzen digutela. Izan ere, emakumezkoek idatziriko gutunak gailentzen dira. Honakoa dio:

Genero parametroari doakionean, emaztekieen proportzio altua azpimarkatzekoa da: esposek, alabek, amek edo arrebek gutunen %60tik goiti sinatzen dute. Ehuneko horrek, hein batean, gutunen hartzaile gehienak gizon izate hutsari obedi liezaiokeen arren, ez genezake nehola ere gutiets: garaiko Lapurdiko emazteen alfabetatze gradu altuaren frogantza da, gizarte maila apaletan ere. (Padilla-Moyano, 2015: 59).

Dirudienez, Ipar Euskal Herrian XVII-XVIII. mendeetan euskaldunen alfabetatzea nahiko zabaldua zen klase baxuko biztanleetan ere; alegia, emakumezkoek ere bazuten alfabetatua izateko aukera:

Iduri luke XVIII. mendeko Ipar Euskal Herriko alfabetatze indizeak aski altuak izatea, gizonei begiratuz bederen: egungo Pirinio Atlantikoen departamenduan gizonkien %70a alfabetatua zatekeen. Ikusi denez, *Le Dauphine*ko igorle gehienak alfabetatuak ziren, kasu anitzetan populu xumeko kideak izanda ere. Oro har, beren desir, emozio eta izuak adierazten zituzten langile jendeak ditugu, Louisbourgen zeuden marinelen familiak eta adiskideak. (Padilla-Moyano, 2015: 60-61).

Oyharçabalen iritziarekin bat datoz gutun hauen azterketaren ondoren ateratako ondorioak, hain zuzen: alfabetatze tasek Aro Modernoan erakusten dute Ipar Euskal Herrian bazela euskaraz alfabetatzeko sistema bat, frantsesaren indartzearen eraginez eta goi-mailako frantsestearen eraginez klase baxukoentzat geratu zena. Zehazki, behe mailako jendea erlijio katolikoan hezteko helburuarekin mantendu zena. Hegoaldean garai horietan ez dugu egoera bera, bertan euskaraz alfabetatzeko ahaleginak urriak izan baitziren, euskararen desprestigioa eta baztertzea zirela eta:

Halako jende apala euskaraz izkribatzeko gai izateak Oyharçabalen tesiak (2001a; 2001b) bermatzen ditu: XVII. eta XVIII. mendeetan Akitaniako euskal herrietan bazen euskarazko alfabetatze sistema bat, frantsesa hedatu ahala gizartearen maila apalagoetara mugatuz joan zena. Euskarazko oinarrizko formakuntza hura, Belapeirek deitu “ororen eskolatan” (petites écoles) gauzatua, Eliza Katolikoari estuki lotua zen, xede kateketikoa nagusi izanik. Xumea eta oinarrizkoa izanik ere, halako euskarazko eskolatzek kontraste bizia agerrarazten du Hegoaldeko egoerarekiko. (Padilla-Moyano, 2015: 61).

Le Dauphin itsasontziko gutuneriaren ikerketaren bidez, ahozkoatasunaren nolakora hurbiltzeko saiakera egin da. Gutunak, auzi-paperetan gordetako lekukoen esanak eta antzeko lekukotasunek eguneroko ahozko mintzoaren irudia eraikitzeko baliabide egokiak baitira.

Ahozkoatasunaren isla testuetan bilatzerako orduan, Urgellek (2017) adierazi bezala, badira idatzizko testuetarik batzuk ahozkoatasunetik gertuago daudenak, edo horren isla fidelagoa ematen dutenak; horren lekuko genuke antzerkigintza, antzezteko eginiko testua izanik oso zehatz gorde behar duelako ahozkoatasunaren izaera, eta, beraz, idatzirik egonda ere, ahozko bat-bateko edota eguneroko hizkeraren oihartzunak aurkituko ditugu antzezlantako testuetan bertan:

Nolanahi ere, adostasuna dago zenbait literatur genero eta zenbait testu mota formalago edo “idatzizkoagoak” direla, beste batzuek ahozkoatasunaren islak izateko aukera gehiago ematen duten bitartean. Hala bada, ahozkotik gertuago egoten dira gutun pribatuak gutun ofizialak baino, betiere ulerturik idazteak berak gutxieneko arau batzuk ezartzen dizkiola idazten ari denari. Ahozkotik gertuago daude, berebat, egunerokoak eleberriak baino, eta abar. Horrezaz gain, badira

genero batzuk berez oso “idatzizkoak” izan arren, berariaz ahozketasuna islatu nahi dutenak. Adibide ezagunena antzezlanak dira: formalki oso literarioak izan daitezke, bai, baina elkarrizketak jasotzen dituzten heinean guztiek ere badute ahozketik zerbait. (Urgell, 2017).

Euskarazko corpusari dagokionez, euskarazko lan idatzien berankortasuna eta kopuruaren aldetik dugun urritasuna, bai eta euskalkien arteko asimetria eta generoaren aldetik dugun homogeneotasuna jadanik Mitxelenak aipatu zuen, askorentzat buruhaustea izan dena hizkuntzaren azterketan aurrera egiteko orduan. Antzerkigintzako euskal testuak urriak dira euskal tradizioan, nahiz eta Ilustrazioarekin batera genero horren gorakada bat suertatzeko parada egon zitekeen. Patxi Salaberri Muñoak (2002) honako ustea du XVIII. mendeko euskal antzerkigintzaren uztaren gainean:

Hamazortzigarren mendeko sentsibilitate neoklasikoak eta genero dramatikoaren izaera didaktiko-praktikoak besterik iragartzen bide zuten arren, ez zen antzerkiarena idazle euskaldunak gehien landuko zuen generoa gertatu, *ezta hurrik eman ere*. (Salaberri Muñoa, 2002: 128).

Eskasiaren arrazoiak adituen arabera euskal gizarte nekazariaren testuinguruan kokatu beharrekoak dira. Salaberrik (ibid.) Orpustanen (1996) hitzak ekarriz ematen dituen azalpenen arabera, antzerkigintza mundu hiritarrari lotua ageri da eta Euskal Herrian nekazaritzaren nagusitasunak eta euskal hiri handien gabeziak, bai eta antzerki-gune ziren hiriburuekiko urruntasun geografikoak eta antzerkia moralaren kontrakotzat jotzen zuten elizgizonen eragin sozial eta kulturalak eragin zuten Euskal Herrian antzerkigintzaren garapen eskasa.

Horri gehitu beharko litzaioke Salaberriren iritziz (ibid.) “euskararen menpe-egoera” eta “nolabaiteko hizkuntza erabilera kultua eta urbanoa ziburta zezakeen noblezia-burgesia euskaltzalearen falta”. Testuinguru horretan euskal antzerki obrak ez ziren izan generoen artean obra arrakastatsuenak.

Dena den, Salaberrik (2002: 129) aipatzen duen moduan: “ez bide da gurean tradizio dramatikorik falta, nahiz eta betiere herri kulturarekin eta ahozketasunarekin lotuago, idatzizko kulturarekin baino, eta, halaber, erlijioari atxikiago bizitza arruntaren gorabeherei baino”.

Jean Haritschelharrek (2011) azaltzen duen bezala, herri antzerkia alde batera utzirik, euskal antzerkigintzaren lehen loratzea, alegia, antzerkigintza idatziak eman zituen lehen fruituak Ilustrazioaren lehen oihartzunekin lotu beharra dago. Hain zuzen ere, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen fundazioarekin hasiko dira lehen antzerki obrak ontzen.

Es en la segunda mitad del siglo XVIII cuando nace en Azcoitia, Guipúzcoa, la Sociedad de Amigos del País (1764). Antes de esta fecha, tertulias de café servían para reunir a los interesados, tertulias que para 1748 ya se habían convertido en Junta Académica. (Haritschelhar, 2011).

Berak dioen bezala, Peñafloidako kondeak gidaturiko elkartearen bidez sartu ziren Ilustrazioaren lehen izpiak Euskal Herrian, nahiz eta nahikoa berandu iritsi Europarekin konparatuz:

Se puede decir que "las luces" entran en el País Vasco peninsular a través de esa sociedad liderada por el Conde de Peñafloída. Aunque el objetivo principal de la sociedad era el desarrollo de las ciencias y no el cultivo del vascuence, el Conde de Peñafloída, Don Francisco Xavier María de Munibe e Idiaquez (1723-1785), compuso una ópera cómica con diálogos en castellano y cantos en vascuence: *El borracho burlado*, representado e impreso en Vergara, en el año 1764. Se trata de la primera ópera en el País Vasco, justo en el siglo que conoció la ascensión del género. También se le atribuyen a Munibe, quien utilizó el seudónimo de Sor María de la Misericordia, los *Gabon sariac*, villancicos que se cantaron en 1762, en la iglesia de Azcoitia. (Haritschelhar, 2011).

Salaberrik (2002) aipatu bezala, Zuberoan garatutako eta egun ere arrakasta mantentzen duten ahozko genero herrikoien barnean kokatzen den herri antzerkia (*pastoral* edo *trajediak*, *maskaradak*, *inauterietako komeriak* eta *xaribariak* eta horiekin loturik antzezten ziren *astolasterrak*) ditugu euskal antzerkigintzaren emankortasunaren irudi. Hala ere, gure eskuetara iritsi zaizkigun euskal antzerki obra zaharren artean, XVIII. mendean idatziriko Pedro Ignazio Barrutia aramaioarraren *Acto para la Nochebuena* (*Gabonetako ikuskizuna*) liturgia-drama, Juan Carlos Gerrak aurkitu eta Azkuek 1987an *Euskalzaile* aldizkarian argitaratua; bai eta Xabier Munibe (1729-1785) azkoitiarrak idatziriko *El borracho burlado* (1764) obra ditugu. Emakumezkoak pertsonaia bezala obra horietan ere ageri dira, bai eta esku artean dudana Joakin Alzibar-Jauregiaren *Grand Tour* obran, non pertsonaia guztiak, alegia, hirurak emakumezkoak diren.

2. Lanaren helburua eta metodologia

2.1. Lanaren helburua

Lan honen helburua emakumezkoen hizkeraren ezaugarriak aztertzea da hizkuntzan oinarriturik. Horretarako ahozko hizkerarekiko erlatiboki gertuko isla den Joakin Alzibar-Jauregi Atxaran (1746-1810) azkoitiarrak 1772an idatzitako *Grand Tour* obra hautatu dut. *Grand Tour* antzezlanean maila sozial ezberdinetako hiru emakumeren sukaldeko jarduera jasotzen da. Lan honetan, hiru emakumeok darabilten hizkuntza neutroa ote den, ala antzerkigileak bere inguruko emakumeen mintzoa islatu ote duen aztertzea izango da helburua.

Joakin Alzibarrek garai hartan boladan zegoen *tour* horietako bat egin zuen European barrena, hainbat hiri handi bisitatuz eta horrek eman zion antzerki obra idazteko oinarria. Aguinagalde, Aldekoa & Ugarte (2007b) artikulua dakarren bezala, Joakin Alzibar XVIII. mendeko gipuzkoar aristokrata garrantzitsua izan zen, nahiz orain gutxira arte itzalean egon den (Aguinagalde et al., 2007b: 1).

Joakin Altzibarrek anaia Vicente Altzibarrekin batera bidai hori egin zuen 1772ko maiatza eta azaroa bitartean gutxi gorabehera; urtebete lehenago euren osabaren herentzia jasotzearekin lotu liteke bidaia hau burutu ahal izana:

El hecho más relevante de la biografía de ambos es, sin embargo, el largo viaje que emprenden por las principales Cortes europeas —en el estilo del clásico grand tour de las aristocracias europeas del siglo—, entre, aproximadamente mayo y noviembre de 1772, y que les llevará a visitar Italia (Roma, Florencia, Bolonia, Nápoles, Venecia), Austria-Alemania (Viena, Baden, Munich), Francia (París) y Gran Bretaña (Londres). Viaje que quizás se puede poner en relación con la herencia de un año antes de su tío el rico indiano Aguirre Acharan, que acaso serviría para financiarlo. (Aguinagalde et al., 2007b: 3).

Amsterdamgo gazeta batean gorderik geratu da Altzibar anaiek egindako bidaia:

El viaje de los hermanos Alcibar “caballeros distinguidos que viajan por las principales Cortes de Europa”, es conocido por la noticia que del mismo proporciona la *Gazeta de Amsterdam* nº 62, de 4 de agosto de 1772, con motivo de la Audiencia que obtuvieron de Clemente XIV Ganganelli el mismo día en el que presentaba credenciales el Embajador de Carlos III ante el Santo Padre, que no es otro que Floridablanca. José Moñino va a Roma con el objetivo fundamental de consolidar el prestigio de Carlos III y de concluir con la supresión y disolución de la Compañía de Jesús. Y, efectivamente, obtiene la Audiencia de ingreso como Embajador el 12 de julio de 1772. (Aguinagalde et al., 2007b: 4).

Dirudienez, Zavala Alcibar-Jauregui familiaren artxiboan eskuizkribaturik gorde den informazioaren arabera, antzerki obra bat idazteko ideia izan zuen Joakin Altzibarrek: garaiko boladen gisara eta bidaia horretan onarriz egin zuen, zalantzarik gabe. Hirugarren pertsona bat aipatzen da eskuizkribuan, bidaiaren kronika idazteaz arduratu zena, antza denez (Aguinagalde et al., 2007b: 7).

Altzibarrek hiru emakumerekin jolasten du antzerki obra honetan, garai hartan hain arrakastatsuak ziren Europan barrenako *tourrak* aitzakiatzat hartuz. Hiru pertsonaia horiek dira Joakin Altzibarren ama den D.^a M.^a Antonia de Atxaran (AA); etxean jostun lanak egiten dituen Antoni Jostuna (AJ) eta Ignazi Oleaga (IO) etxeke andrea bisitatuz joan den herritarra.

Antzerki obraren ardatza edo haria etxeke andrearen semeak egindako bidaiaren kontakizuna da. Bi zerbitzariak euren ezjakintasun ia lotsagarri eta barregarria agertuz etxeke andreari entzungo diote. Mikel Ayerbek (2020) honakoa azaltzen du antzerki obraren sinopsiari dagokionez:

Antoni jostun lanetan ari da Maria Antonia Atxararen etxean, egin dituen soineko eta jantziak azken horren bitartez Parisa igorri eta bere semeen bitartez han saltzeko. Aldiz, Ignazi Maria Antonia Atxararen etxera joan da, dastatu berri duen txokolateari buruz mintzatzeko, eta hirurak sukaldean elkartzeko direnean, bidaiaren dabiltsan semeen inguruan galdetuko dio etxekeandreari. Hortik aurrera, eta

betiere Joakin eta Bizente Altzibarren ibileren kariatara, Europako zenbait hiriburu eta herrialderen inguruan arituko dira berriketan: Venezia, Alemania, Ingalaterra, Londres eta Parisez, hain zuzen. Izan ere, hasiera batean Maria Antonia Atxaranez aspaldian semeen berririk ez duela aitortu arren, antzezlanaren une batean gutuna jasoko du jakinaraziz semeak osasun onean dabilzala eta Vienatik Ingalaterrara pasatu direla. (Ayerbe, 2020: 624).

Beraz, bidaiaren inguruko elkarrizketa bat izango da, hiru emakumeen artean garatuko dena. Kontuan hartzekoa da etxeko andrearen klase sozial altuak baimentzen diola jakinduria eta beste bi pertsonaiak, alegia, jostuna eta bisitaria, zeharo ezjakinak izango direla, pertsonaia barregarri gisara agertuko direlarik momentu batzuetan. Umorezko obra bat da *Grand Tour*, ekitaldi bakarra du eta “ildo errepikakor samarra” Ayerberen iritziz.

Lehenik eta behin, Maria Antonia Atxaranez semeek bisitatu duten hiri edo herrialde bat aipatzen du, eta jarraian, Antoni jostuna eta Ignazi horien gaineko ezagutza apurrak eta aurreiritziak zerrendatzen hasiko dira, norgehiagoka bat balitz bezala, zeinek gehiago dakien erakutsi nahian. Halere, euren ekarpenak astakeriaz eta ateraldi barregarri gainezka daude, eta, azkenean, Maria Antonia Atxaran izango da hiri eta herrialdeei buruzko ezagutzak zentzuz zerrendatu eta bi ezjakinei irakaspenak emango dizkiena. (Ayerbe, 2020: 624).

Ayerberen arabera, publikoa entretenitzeko helburua garbia da, baina elite ilustratuaren interesari men eginez. Bestetik, herri xehea hezteko helburua ere izan lezake, nahiz eta Ayerberen ustez, “ezjakinak barregarri agerraztearen atzean, ezjakinak heztea baino, beren lepotik barre egiteak pisu gehiago izan ziurrenik”. (Ayerbe, 2020: 624).

Euskal Herrian emakumezko idazleak gutxi izan dira oraintsu arte eta hori gutxi balitz, Salaberrik (2002) aipatu bezala, antzerkigintza ez da oso oparoa izan gutxienez 1976ra arte, Euskal Pizkundearekin batera abiatu baitzen indarrez; beraz, antzerki obrei dagokionez, urri eta berankorrek izango ditugu. Are zailagoa izango da emakumearen mintzoa islatzen duen ahozko generoko obra bat topatzea, gurean ere emakumeek izan duten ikusgaitasun eza eta idazle kopuru urriak eraginik.

Hori dela eta, emakumeari ahotsa jarri dion obra bat izan da hautatua *emakumearen mintzoa* ikertzeko. Halaber, kontuan hartu behar da Altzibarren obran agertzen diren hiru emakumeen ahotsa eta hizkeraren eraikuntza, gizonezko baten ikuspegitik eta hautemandako irudipenetatik egin dela. Alegia, gizonezko batek sortu ditu emakumezko hauen hitz egiteko moduak. Beraz, baliteke emakumeen hizkeraren isla erabat erreala eta zintzoa ez izatea, baizik eta gizonezko batek bere esperientziaren arabera irudipen edo iritzi baten errepresentazioa izatea. Gainera, barre eragiteko obra dela dirudenez, egileak gutxienez Antoni Jostuna eta Ignazi Oleaga ezjakinen ahotsak desitxuratu bide ditu, hainbatetan esajerazioraino eramanez.

Bestalde, obrak hiru emakumeren hizkerak islatzen ditu; alta, ez du gizon bakar bat ere antzezlekura igotzen. Hori dela eta, obran bi generoen hizkeren ezberdintasuna ez dago konparatzerik, beste hizkuntza tradizio batzuetan egin dena ez dago egiterik. Beraz, corpusak berak ere mugak sortzen ditu ataza hau lantzeko.

2.2. Lanaren metodologia

Generoaren bereizketa bitarra egin dute aurreko egileek. Hain zuzen ere, emakume/gizon banaketa dakar bibliografia nagusiak. Ordea, kontuan hartzekoa da generoa bitarra izatea bera ere gizartearen ikuspegi tradizionala dela. Egun diren aldarrikapenez oroitzuz eta gizartea osatzen duten pertsonak eta joerak gehiegi ez direla aldatu ikusirik, alegia, genero aniztasuna beti egon dela kontuan harturik, emakumezko/gizonezko banaketa zalantzan jarri daiteke. Are arrazoi gehiagorekin beste kultura batzuetan bi genero baino gehiago bereizten dituztela kontuan harturik. Hala ere, lan honetan emakume/gizon genero banaketa mantendu dut; izan ere, *Grand Tour* antzerki obran emakumezkoak ageri dira eta ez dago genero gehiagoren agerpenik.

Lanari dagokionez, emakumezkoek eta gizonezkoek hitz egiteko baliabide eta ezaugarri ezberdinak dituztela asumitu dut, egoera soziala eta generoaren eraikuntza tradizionala aintzat hartuz, gizarteak zuzenean edo zeharka ezarri dizkien rol eta jokabideak daudelako hizkera bakoitzaren atzean. Alegia, gizarteak zuzenean edo zeharka haurrak garenetik hezten gaituela kontuan hartuta eta hizkuntza ere jokabide bat gehiago dela jakinik, emakumezko eta gizonezkoen hitz egiteko manierak ezberdinak izango direla espero dezakegu.

Are gehiago, hizkuntzaren bidez, gure izaera eta gure pentsamendua adierazten dugunez, emakumezko eta gizonezkoen hizkuntzaren ezaugarri batzuk onartuko zaizkie eta beste batzuk gaitzetsiak izango dira. Hots, bakoitzaren posizio soziala dela eta, ez dira onartuak izango sozialki generoari ez dagozkion hitz egiteko erak; beraz, adibidez, hitz gordinen erabilera gizonezkoengan onartuagoa izango da emakumezkoengan baino.

Grand Tour obrako hiru emakumeen hizkera analizatzeko, Lakoffen 1973ko “Language and Women’s Place” lanean oinarritu naiz eta horixe izan da analisisa egiteko gida nagusia, gainerako bibliografiarekin batera. Lakoffek bere artikuluan hainbat ezaugarri aipatzen ditu Estatu Batuetako ingeles hiztunetan oinarrituz hauteman zituenak. Alegia, ingeles hiztunak diren Ameriketako emakumeen mintzoaren hainbat ezaugarri azaltzen ditu artikuluan eta horiek emakumearen egoera sozialarekin lotzen ditu, aldi berean gizonezkoen hizkerarekin erkaketa eginez.

Lakoffek (1973) proposatzen du emakumezko eta gizonezkoek hitz egiteko manera ezberdinak dituztela eta hizkuntza-baliabide ezberdinak erabiltzen dituztela generoak gizartean duen posizioaren arabera, edota genero bakoitzarengandik espero denaren arabera. Hori dela eta hainbat ezaugarriren berri ematen du genero bakoitzaren hizkera definitu edo ezaugarritzeko; besteak beste, hizkuntz baliabideen maiztasuna edo erabilera mota neurtzen ditu. Horretarako ingeles hiztunengan oinarritzen da:

“Women’s language” shows up in all levels of the grammar of English. We find differences in the choice and frequency of lexical items; in the situation in which certain syntactic rules are performed; in intonational and other supersegmental patterns. (Lakoff, 1973: 49).

Ezaugarriak azaltzerakoan hainbat adibideren bitartez erakusten du zertan datzan generoaren arabeko hizkeraren izaera bereizgarria. Euskaraz, ordea, Lakoffek aipatu hainbat ezaugarri ez dira ageri, hizkuntza ezberdinak izanik ezaugarri gramatikal batzuk ezin baitira era berean topatu. Horren adibide litzateke, esaterako, Lakoffek emakumezkoen hizkeran sarriago aurkitzen dituen “tag questions” direlakoak. Euskaraz halako galderarik ez denez, nire analisitik kanpo utzi dut ezaugarri hau.

Artikuluaren zehar Lakoffek emakumezkoen inguruan hitz egitean erabiltzen diren esamolde motak eta lexikoa analizatzen ditu, bai eta denboraren poderioz hitz batzuek hartu dituzten konnotazioak, orokorrean emakumezkoen gutxiespenera jotzen dutenak. Honelako adibiderik eguneroko euskararen erraz aurkitu daitezkeen arren, gai hori ere analisitik kanpo utzi dut lanaren helburu nagusia dela eta. XVIII. mendeko emakumezkoen hizkera karakterizatzen duten hizkuntza-ezaugarriak bilatu ditut eta kanpo utzi ditut emakumezkoen prestigio sozialaren inguruko gaiak.

Khouirul Umami Mazidah-k (2013) honako laburpen hau egiten du Lakoffek aurkezten dituen ezaugarriei dagokienez:

Lakoff analyzed that there are ten types of speech features that commonly used by women than men that based on her intuition and observation. Those speech features are lexical hedges fillers, tag questions, rising intonation on declaratives, “empty” adjectives, specialized vocabularies (precise color terms), intensifiers, “hypercorrect” grammar, “super polite” form, avoidance of strong words, and emphatic stress. Those speech features are commonly used by women in their communication. Each of those features has different functions, for example to show femininity, to strengthen the meaning of a sentence, to show uncertainty, etc. (Umami Mazidah, 2013: 1).

Lan hau egiteko, lehenik eta behin, Lakoff (1973) artikuluan azaltzen diren ezaugarriak bilatu ditut corpusean. Ingelesari konkretuki dagozkion ezaugarri batzuk euskararen agertzeko aukerarik ez dutenez, horiek bazter utzi ditut eta Lakoffen (1973) hainbat ezaugarri unibertsalak direlakoan, hots, hizkuntza bat baino gehiagotan ager daitezkeela ikusirik, horien bilaketa egin dut laginean. Adibide bat ematearren, adjektibo multzo irekia eta adjektibo zerrenda amaigabea duten hizkuntzek badute aukera adjektibo anitz izate hutsagatik Lakoffek azaltzen duen adjektiboen erabilera bera egotea emakume eta gizonen aldetik. Aurrerago azalduko dudana bezala, emakumezkoek eta gizezkoek ez baitituzte adjektiboak era berean erabiltzen Lakoffen (1973) arabera.

Lakoffek proposaturiko hamar ezaugarrietatik bi hautatu ditut laginaren azterketarako: batetik, Lakoffek aipaturiko *meaningless* edo partikula betegarriak eta bestetik, kalifikatzaileak. Azken hauen adierazkortasun karga dela eta aztertu ditut. Hala ere, corpusean aurkitu ditudan beste ezaugarri batzuk ere esanguratsuak iruditu zaizkit, euren maiztasuna eta agerpen kopurua ikusirik eta emakumezkoen mintzoaren ezaugarritzat proposatu ditut: txikigarriak, erlijioarekin lotutako esamoldeak eta galdera erretorikoak.

Alabaina, euskaraz gisa honetako lanik egin ez denez orain artean, ez ditut euskal emakumezkoen hizkeraren ezaugarri absolututzat emango, ezta XVIII. mendeko

emakumeei dagokienez ere; izan ere, corpusaren mugak eta bibliografia ezak eraginik, azterketa askoz ere xeheago bat eskatzen du. Ondorioak plazaratzekotan, ikerlerro hau zehatzago aztertu beharko litzateke eta horretarako ahozko hizkeratik gertuen dauden testuak erabili eta emakumezkoen ahotsak bilatu, gizonezkoenarekin konparatuz.

Grand Tour aztertzeko Aginagalde eta besteren (2007) edizioa erabili dut eta antzerki obran aurkitu emakumezkoen mintzoaren ezaugarriak bereizgarritzat hartzeko, tresna ezinbestekoak izan dira Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia*, beste testu batzuetan bilaketa egiteko aukera eman baitit; horrela, denbora eta geografia aldetik gertu dauden bestelako testuetan ere agertzen diren forma berberak ikusirik, analisisa osatzeko balio izan dit. Klasikoen Gordailuarekin batera erabili dut baliabide hau; izan ere, adibidetegian aurkitu ditudanak testuetan arakatu ditut, adibideak testuinguruaren barruan kokatzeko.

Arakatu ditudan adibideetan ez dut aurkitu jatorrizko testura jotzeko arrazoi filologikorik. Hori dela eta, aipatu ditudan testu guztietan grafia eguneratua dago, Gordailuan bezala. Bereiz aipatu behar dut, ordea, *Gran Tour* testuaren kasua: izan ere, ediziogileak bi testu eskaintzen ditu parez pare, jatorrizkoa eta euskara batura nola edo hala ekarritakoa. Nire lanak ez duenez grafiari eta fonetikari dagokionez horrenbesteko zehaztasunik eskatzen, erabaki dut euskara batuko bertsioa erabiltzea, irakurleak nahi izanez gero jatorrizko bertsioa erraz aurkituko duelakoan.

Grand Tourean aurkitu dudanaekin erkatzeko Muniberen *Borracho Burlado* eta Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* ere erabili ditut, emakumezkoen eta gizonezkoen mintzoen arteko ezberdintasunak aztertzeko. Bi antzerki obra hauetan ezaugarriak zehatz bilatu ditut, biak garaikideak izanik eta bertan emakumezko pertsonaiak eta gizonezkoak bietakoak agertzen direlarik, erabili den laginarekin konparaketa bat egin dut. Alabaina, aintzat hartu beharra dago bi testu hauen izaera eta generoa: bertsoetan idatziriko antzerki obrak dira eta funtzioa ere bestelakoa dute.

3. Azterketa

Grand Tour antzerki obran, hainbat ezaugarri ageri dira emakume hauen hizkera karakterizatzen dutenak:

3.1. Partikula betegarriak, interjekzioak

Lakoffek (1973) azaldu zuen bezala, emakumezkoek *meaningless* direlako hitzak erabiltzeko joera dute:

We find differences between the speech of woman and that of men in the use of particles that grammarians often describe as “meaningless”. There may be no referent for them, but they are far from “meaningless”: they define the social context of an utterance, indicate the relationship the speaker feels between himself and his addressee, between himself and what he is talking about. (Lakoff, 1973: 50).

Lakoffek ingelesezko “oh dear” bezalakoak aipatzen ditu emakumezkoen hizkeraren partetzat eta gizonezkoek “shit” edota “damn” bezalako hitzak erabiltzeko joera orokorragoa dutela azaltzen du (Lakoff, 1973: 50). Lakoffen hitzak aintzat harturik eta euskal gizartea munduaren parte den neurrian, horren ezberdina ez dela jakinik, artikulua egileak plazaratutako emakumezkoen hitz egiteko moduak antzekoak izan daitezkeela asumitu daiteke. Hartara, partikula betegarri eta interjekzioei dagokionez ere, emakumezkoen mintzoan “goxo” edo “neutro” diren formak gehiago eta esanahi gordinagoa dutenak urriago agertuko dira. Era berean, gizonezkoek madarikazioak botatzeko joera gehiago izango dute, nahiz eta partikula neutroak ere erabiliko dituzten horiekin batera.

Esku artean dudan testuan hainbat aldiz irakur daiteke “jesus!” interjekzioa bestelako partikula gramatikal batzuekin batera; “bada”, “hala”, “eze”... bezalako partikulek konnotazio berezirik ez dutela ikusirik, alegia, ez dutenez, apaltasuna, errespetua edota beste edozein konnotazio berezirik eta partikula gramatikal neutro direlakoan, alde batera utziko ditut eta erlijioari loturiko partikula honen gainean mintzatuko naiz.

Lakoffek aipatu partikula betegarrien erako formatatik “jesus!” interjekzioa aukeratu dut analisia egiteko, maiztasun handiarekin ageri delako laginean zehar. Honako tokietan ageri da testuan Antoni Jostuna (AJ) eta D^a M^a Antonia de Atxaran (AA) etxeko andrearen ahotan: “AJ: Jesus, Inazi, horrenbeste pazientzia edukitzen du batek hainbeste pregunta egiteko” (80. lerroa); “AA: Jesus, Inazi, Jaungoikoak bihotza jo dizu” (169. lerroa); “AA: Jesus, Antoni, hori esango zenuke?” (359. lerroa); “AJ: Jesus, etxeko andrea, milioi bat ez dakit nik zenbat den, baina asko da” (382. lerroa); “AJ: Jesus, etxeko andrea, horregatik daude bazter guztiak frantsesez hondaturik” (398. lerroa) eta “AJ: Jesus, etxeko andrea, hori kontsumoa” (441. lerroa). Antoni Jostunak lau aldiz aipatzen du; etxeko andreak, berriz, bi aldiz. Laginaren luzera dela eta, Ignazi Oleagaren ahotan ageri den adibiderik ezin izan dut topatu; hala ere, beste biek ugari erabiltzen dutenez nahikoa deritzot ezaugarri hau emakumezkoen hizkeran maiztasunez ageri dela esateko.

*OEH*ren arabera (s.v. *jesus*), interjekzio gisara erabili ohi da eta harridura, ezustekoa edo aurkaritza adierazten du. Bertan ageri den bezala, hainbat aldiz lekukoturik dago “jesus!” interjekzioa. Euskal Herri osoan erabilia eta dokumentatua da, nahiz hizkera batetik bestera aldaera ezberdinak dituen forma aldetik. Interjekzio honen lehen agerraldia *OEH*ren arabera, 1594koa da, Nafarroa Garaiko Orbaibarren izandako ezbehar bati buruzko auziaren paperetan jasoa (Nafarroako Artxibo orokorra; ap. Maiora, 2011: 94).

*OEH*n ageri diren adibide anitzen artean Juan Antonio Moguelen (Eibar, 1745-1804) *Peru Abarka* (1802, 1881) liburu entzutetsuan aurkitu dut interjekzioa Klasikoen Gordailua arakatuz. Hiru aldiz baino ez da ageri: “Diálogo Tercero” atalean behin eta “Diálogo Cuarto” atalean Maisu Juanen ahotan bi aldiz. Ondorioz, gizonezkoek ere erabiltzen dutela ikusi dut. Muniberen *Borracho Burlado* eta Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* antzerki obretan, hainbat partikula betegarri aurkitu ditut. Muniberen antzerki obran (*BorrB* 488), esanahi gordinik gabeko partikula betegarri bat ageri da gizonezko baten ahotan. Hain zuzen ere, Txanton Garrote pertsonaia mozkor eta festazaleak, mozkorturik dagoen eszena batean “ai ene!” interjekzioa darabil, nahiz honekin ez den harridura adierazten, mina edo pena baizik.

Bestetik, Lakarraren (1981) edizio kritikoan ageri den bezala, partikula betegarri berberak ageri ditu gizonezkoen ahotan. Besteak beste, San Jose hitz egiten ari denean “ai, ai, ai ene!” dio bi aldiz (60, 66. lerroetan), baita “ai! Ene triste!” (62. lerroan). Arrazoiak arrazoi laginean ez dut topatu Muniberen eta Barrutiaren antzerki lanetan agertzen den “ai ene!” gisako interjekziorik.

Partikula neutroak, beraz, ez dira emakumezkoen hizkeraren ezaugarria. Halere, emakumezkoen mintzoan ugaritasun handiagoa dute, *Grand Tour* antzerki-obran ikusi “jesus!” interjekzioarekin gertatu bezala. Interjekzio neutroen erabilera ez, baizik eta maiztasun handia bide da emakumeen mintzoaren ezaugarritzat hartu dezakeguna XVIII. mendean. Esanahi edo kutsu gordinagoa duten betegarri eta interjekzioei dagokionez, ez dira inondik inora ageri obretan; hala ere, joera horixe da, hain zuzen, XVIII. mendeko testu idatzietan espero duguna. Garai hartako ilustratuen testuinguruan, nekez espero daiteke ez bakarrik idatziz, baizik eta jendaurrean aurkeztuko den obra batean hitz gordinik agertzea. Horren lekuko dira Muniberen eta Barrutiaren lanak, non partikula neutroak bai, baina kutsu gordinagoa dutenak ez diren ageri. Gauzak horrela, esan daiteke Lakoffek (1973) proposatu partikula betegarrien inguruko joera euskaran ere ikus daitekeela.

3.2. Kalifikatzaileak

Lakoff (1973) adjektibo adierazgarriez mintzo zaigu, esanaz badirela adjektibo neutroak, alde batetik, eta emakumeek erabiltzen dituzten adjektiboak, bestetik. Emakumeen ahotan erabiltzen diren adjektibo horiek zerbaiten miresmena edo onarpena adierazteko dira erabiliak. Konnotazio adierazgarri bat izan ohi dute. Emakumezkoen hizkeran adjektibo neutroak ere ugariak dira; alabaina, gizonezkoek erabiliko ez lituzketen adjektibo adierazgarriak agertzen dira maiz.

There is, for instance, a group of adjectives which have, besides their specific and literal meanings, another use, that of indicating the speaker's approbation or admiration for something. But another set seems, in its figurative use, to be largely confined to women's speech. (Lakoff, 1973: 51).

Lakoffek hainbat adjektibo neutroren eta emakumezkoek darabiltzatenen adibideak ematen ditu gai hau azaltze aldera. Dioenez emakumezkoen adjektiboak ez dira soilik "femeninoak", baizik eta "tar-tean sartzen ez direnak" edo "boteretik kanpo" daudenak ere badira. Haren ustez, "femeninoak" diren hitz horiek femeninotzat hartzen dira emakumea justuki gizartean "tar-tean ez delako sartzen" eta "boteretik kanpo" dagoelako:

These words aren't, basically, "feminine"; rather, they signal "uninvolved", or "out of power". Any group in a society to which these labels are applicable may presumably use these words; they are often considered "feminine, "unmasculine", because women are "uninvolved", "out of power" group *par excellence*. (Lakoff, 1973: 53).

Bere hitzetan, klase altuko ingeles hiztunek, alegia, apaiz edota gizon akademikoek emakumezkoen adjektiboak erabiltzen dituzte, betiere euren maskulinitatea zalantzan jarri gabe. Baina ez da hori gertatzen klase baxuko gizonezkoen hizkerari dagokionez.

Academic men and ministers (specially those who emulate British norms) [...] they often use "women's language" [...]. But to a truck driver, a professor saying, *What a lovely hat!* is undoubtedly laughable, all the more so as it reinforces his stereotype of professors as effete snobs. (Lakoff, 1973: 53).

Adelaide Haasen (1979) artikuluan ageri den bezala beste egile batzuek ere Lakoffen (1973) adjektiboen hipotesia babestu dute: "Hartman (1976) tested and supported Lakoff's hypothesis that women use evaluative adjectives more than men". (Haas, 1979: 621).

Grand Tour obrari dagokionez, adjektibo adierazgarri batzuen artean, beste kalifikatzaile mota batzuk ere aurkitu ditut esanahi adierazgarria dutenak. Horren arrazoia ingelesa eta euskara antolamendu ezberdineko hizkuntzak izatean datza, alegia, ingelesez partizipioak adjektibo ere izan daitezke beti, alabaina, euskaraz hiru partizipio mota ditugu. Bestela esan, euren partizipio markaren orde-z, hiru marka ezberdin ditugu: adjektibo izan daitekeen -a marka (*irekia*), partizipioa + -rik marka (*irekirik*) eta partizipioa + -ta marka (*irekita*). Hori dela eta, laginean aurkitu bestelako kalifikatzaile adierazgarriak ere gehitu ditut; izan ere, horietako batzuk hartzailearen atentzioa erdiesteko helburua dutela dirudi, esajerazio puntu bat ere badutelako testuinguruaren barnean eta nolabait balorazio positibo bat helarazteko erabiliak direlako.

Kalifikatzailetzat hartu ditudan horiek honakoak dira:

1. D^a M^a Antonia de Atxaranen ahotan: "IO: Betorria etxeko andrea. Semeen notiziarik badu? AA Ez, Inazi, notizia fundamentuzkorik aspaldiko egunetan" (23-26. lerroak); "Herri honetan dago enperadorea (Madrilen erregea dagoen bezala) bere ama alargunarekin, zeina deitzen den

Hungariako eta Bohemiako enperatriza, txit andre ona alde guztietatik eta bere denboran gauza handiak egin dituen” (107-113. lerroak); “besteek baino gibel handiagoa dauka eta ohituta dago lehenagotik ere egotera denbora luzetxoan letratxo eskribitu gabe” (158-161. lerroak); “zer dio galai honek?” (171. lerroa); “zergatik Londres, Ingalaterraren burua edo herri nagusia da, hala bere kaleetan, nola etxeetan txit entero garbia, herri hau garbia bada ere” (244-247. lerroak); “ez duzu munduaren parte honetan herri kuriosoagorik aurkituko” (250-251. lerroak); “denda hauen edertasunak hain ederrak egiten ditu Londreseko kale guztiak, ze ezin sinets liteke ikusi gabe esan zenuen [?] Paris baino ederragoa dela” (258-262. lerroak); “aturdituta geldituko zinateke, baldin bazeneki ze herri den Paris” (313-314. lerroak).

2. Antoni Jostunaren ahotan: “kargu eginik nago, etxeko andrea, berorren notiziek beste fundamenturik daukatela Inazirenak baino eta ikaratuta lagatzen nau nola hain ondo dakien gauza hauen Azkoititik irten gabe” (119-124. lerroak); “Donostiako kaleak ondo zuzenak eta ederrak dira” (300-301. lerroak).
3. Ignazi Oleagaren ahotan: “gizon sabioak bere etxetik irten gabe inponitu lezake gauza askotan” (126-128. lerroak); “D. Bizentek ez du nire semeak adina petxu egoteko denbora luzean kartarik eskribitu gabe” (152-154. lerroak); “hain ondo hitz egin duzu eta hain gustu handiarekin egon naiz txoraturik zuri aditzen, ze baderitzot eze, gure Praiskok ez lukeela puntu honetan hobeto esango” (217-219. lerroak); “plaza onak ere bai, baina ez da aurkituko, nire ustez, politak, gurea bezain zabalak eta galantak” (291-293. lerroak).

Adibideetan ikus daitekeen bezala, adjektibo anitzen ondoan “txit” edota “hain” adberbio indartzaileak ageri dira (“txit andre ona alde guztietatik”, “hain ondo hitz egin duzu eta hain gustu handiarekin”), erabilitako adjektiboaren esanahia indartzen eta adierazgarriago egiten dutenak. Bestalde, konparaketa egitura anitz ageri dira, testuinguruaren barruan adjektiboaren adierazgarritasuna indartzen dutenak eta mezua hiperbolikoagoa egiten dutenak (“besteek baino gibel handiagoa dauka”, “ez duzu munduaren parte honetan herri kuriosoagorik aurkituko”, “ez du nire semeak adina petxu”, “politak, gurea bezain zabalak eta galantak”).

Era berean, aipagarria da nola erabiltzen dituzten mezua ulertzeko beharrezkoak ez diren izenondoak, eduki positiboa gehitzen dietelarik (“zer dio galai honek?”, “gizon sabioak bere etxetik irten gabe inponitu lezake gauza askotan”). Azkenik, partizipioaren erabilera ugaria ere aipatu nahi nuke, mezua indartze aldera eta emozio indartsuak helarazte aldera erabiltzen baitute askotan (“aturdituta geldituko zinateke”, “ikaratuta lagatzen nau”, “egon naiz txoraturik zuri aditzen”).

Muniberen obrari erreparatuz, hainbat kalifikatzaile adierazgarri dakartza gizonezkoen ahotan; besteak beste, Txanton Garroteren ahotan “Maritxo laztana” irakur daiteke 396. orrialdean, bai eta Martinikoren ahotan “nire mutil gozoa” 481. orrialdean. Era berean, hitz gogorrak adierazten dituzte emakumeek obran; esaterako, Txantonen mozkorkeria dela eta, Maritxo etsita ageri da bigarren eszenan eta ondoren “urde zikina” bezalako hitz gogorrekin zuzentzen zaio senar mozkortari (396. orrialdean). Aipagarria da berebat, Mariaren ahotan ageri den “nire galai maitea” (485. orria) deiki adierazkorra.

Alabaina, eszenan gertatzen ari den testuinguruak eragiten du halako kalifikatzaileen edo hitz gordinen erabilera; aldiz, espero bezala, beharrezkoa ez diren kalifikatzaile adierazgarriak batez ere emakumezkoen ahotan ageri dira hemen ere; esaterako, “ispilu bat bezin garbi, lau, ta eder parako det aurkitzean loirik estropezu egiñik, nere senar cojoa, gizarajoa” dio Matxalenek seigarren eszenan (406. or.). Gainera, oro har, gizonezkoen hizkera gordinagoa da, bai edukiaren aldetik, bai hitzen erabilera aldetik, zuzenago hitz egiten baitute: “begira harrapatzen bahaut Martintxo gezurretan, gogoango dek betiko mokor hezur horretan” (408. or.).

Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* lanean gauza bera gertatzen da: Jesusen jaiotza bezalako egoeren aurrean gizonezko pertsonaiek hainbat kalifikatzaile adierazgarri, eduki positibodunak adierazten dituzte. Besteak beste, Graziosoaren ahotan, “etxeko andra maitea” (143. or.) edota “musu lindoan argitzen dira begi eder gorri bi”, “arpegiko narru ederrak pergaminaoa dirudi”, “zerren dauen kantu ederra egingo dogu angeru” (148. or.) adjektibo adierazgarriak irakur daitezke. Beste pertsonaia batzuek ere berdin hitz egiten dute: Lorenzoren ahotan “dulzea bere ahoa” (145. or.) irakur daiteke; Tomasen ahotan “honelako gizon ederrik...” (145. or.); Beltranen ahotan “haren abegi ederrak” (146. or.) eta “musika dulzeagoa dago angeru honen agoan” (146. or.); Gabrielelek, “haren ahoko berba dulzea” (147. or.) aipatzen du; Aricha pertsonaia “Jesus dulzea” (151. or.); Aseginzorok “txikitirriko gurea” (151. or.), eta abar.

Muniberen obran Txanton Garrote pertsonaia burlarako asmatua izanik, bere hizkera ere karikaturizaturik dago. Hori dela eta, emazteak gogor hitz egiten dionetan ere, barre egiteko egoera bat asmatzen ari da egilea. Bestetik, Barrutiak hizkera poetikoagoa darabil pertsonaien ahotan. Gai eta testuinguru batzuetan kalifikatzaile adierazgarri gehiago ageri dira, esaterako, Jesus jaiotzen denean ingurukoek kalifikatzaile gehiago erakusten dituzte haurrari buruz ari direla. Hala ere, kontuan hartu behar da gai liturgikoa dela eta eguneroko hizkera ez duela horren errealki islatzen, besteak beste, bertsotan idatzirik dagoelako.

Munibe eta Barrutiaren obrak azterturik, ikus daiteke kalifikatzaile eta adjektibo adierazgarrien erabilera ez dela XVIII. mendeko emakumezkoen hizkeran soilik aurki daitekeen baliabidea, baina emakumezkoek beharrezkotzat jotzen ez diren testuinguruetan ere erabiltzeko joera dute *Grand Tour* obran ikusi bezala. Beraz, baliabide hau garai hartako emakumezkoen hizkeran testuinguru gehiagotara zabaltzen da, alegia, baliabide hau erabiltzeko joera zabalagoa dute eta testuinguruak eskatzen ez badu ere, kalifikatzaile eta adjektibo adierazgarriak erabiltzeko joera handiago dute, mezu

positiboa indartu eta emozioen transmisio handiagoa egiteko helburuarekin, era berean, kutsu hiperbolikoa ematen dutelarik.

3.3. Txikigarriak

Lakoffek (1973) aipatu adjektibo adierazgarrien ildotik, enfasia emateko erabiltzen diren kalifikatzaileez gain, badira baliabide gehiago hizkuntzaren barnean. Hain zuzen ere, emakumezkoen hizkeran maiztasunaren aldetik eta testuinguruak berez eskatu ez arren, gizonezkoen hizkeran baino maizago agertzen diren baliabideak dira txikigarriak. Regúnagak generoaren arabera Santa Rosako hizkeraren inguruan egindako tesian (2004) txikigarriak ditu aztergai ataletako batean. Dioenez, berak bezala beste batzuek ere egin dituzte txikigarrien erabileraren inguruko azterketak eta, haren arabera, emakumezkoek txikigarriak superlatiboekin batera erabiltzen dituzte euren hizkeran adierazkortasun karga handiagoa emateko; horrelako hizkuntzaren ezaugarriak konbinatuz enfasia ematea dute helburu emakumezkoek euren hizkeran:

Los informantes de género femenino han demostrado no sólo utilizar en mayor medida la repetición para denotar énfasis, sino también aumentar su carga expresiva mediante la combinación con superlativos sintéticos, con superlativos coloquiales y con diminutivos. (Regúnaga, 2004: 62).

Hainbat txikigarri mota ezberdin bereizten ditu bere tesian hizkeraren barruan duten funtzioaren arabera: batetik, intentsifikatzaileen barruan handigarri baliadun txikigarriak bereizten ditu; bestetik, aringarri modura erabiltzen diren txikigarriak: tamaina adierazten duten txikigarriak, balio adierazkorra dutenak, balioa gutxitzekoak, balio ironikodunak, atzizki txikigarriarekin indartutako adberbioak eta haur-jolas eremuko txikigarrien lexikalizazioak. Sailkapenarekin batera txikigarri mota bakoitzaren formak ematen ditu, Argentinako Santa Rosa lurraldeko hizkeratik atereak.

Gure laginean, txikigarriak ugari aurki daitezke, hainbat testuingurutan. Guztira hamaika txikigarri topatu ditut. Regúnagaren sailkapeneko txikigarri aringarriak dira guztiak, hots, tamainarekin-eta lotuta ez daudenak eta horregatik “beharrrik gabekoak”. Hiru emakumezkoen ahotan ageri dira:

- Balio adierazkorreko txikigarriak:
 - D^a M^a Antonia de Atxaranen ahotan:
 - “denboratxoak dira ez dudala eduki batere” (149-150. lerroak). *OEH*ren arabera (s.v. *denboratxo*), hurrengo agerraldia M. Soroaren (Donostia, 1848-1902) *Baratzan* (1886) obrari dagokio.
 - “...denbora luzetxoan letratxo bat eskribitu gabe” (160-161. lerroak). “Letratxo”-ren lehen agerraldia (*OEH*, s.v. *letratxo*) Pierre Urteren hiztegiakoa da.
 - Ignazi Oleagaren ahotan:
 - “D. Bizente baino flojotxoagoa da eskribitzeko” (163-165. lerroa). Gaztelarazko maileguan ageri da, hauxe litzateke “flojotxo” hitzaren agerraldi bakarra euskal literaturan (*OEH*, s.v. *flojotxo*).

- “... kartatxo bat edukitzeko kontsueloa gaur edukiko duela” (166-167. lerroak). Adibide honen lehen agerraldia Pierre Urteren hiztegikoa litzateke, 1715 inguruan idatzia (*OEH*, s.v. *kartatxo*).
 - “... eman dizkit Parisen notiziatxo batzuk” (275-276. lerroak). Hitz honen lehen agerraldia da euskal literaturan (*OEH*, s.v. *notiziatxo*).
 - “ez da [...] Tolosako plazan ere jende gutxi juntatzen feriatxo denboran” (363-365. lerroak). Hau ere lehen agerraldia litzateke (*OEH*, s.v. *feriatxo*).
- Txikigarriekin indarturiko adberbioak edo balio bereko postposizioak:
- Ignazi Oleagaren ahotan:
 - “... Donostia baino puskatxo bat handiagoa” (284-285. lerroak). Txikigarri honen lehen agerraldia Larramendiren 1745eko Hiztegi Hirukoitzekoa da (*OEH*, s.v. *puskatxo*).
 - D^a M^a Antonia de Atxaranen ahotan :
 - “...denbora luzetxoan letratxo bat eskribitu gabe” (160-161. lerroak) da. “Denbora luzetxo”-ren hurrengo agerraldia Agirre Asteasukoaren (Asteasu, 1742-1823) *Eracusaldiak II* (1808) obrakoa da (*OEH*, s.v. *luzetxo*).
 - “ia lo puskatxo bat egin nezakeen...” (485-486. lerroak).
 - Antoni Jostunaren ahotan:
 - “ez da hori ere, bada, gutxitxo?” (413. lerroa). Lehen aldiz dokumentatua dago Agirre Asteasukoaren (Asteasu, 1742-1823) *Eracusaldiak III* (1808) obran (*OEH*, s.v. *gutxitxo*). “Puskatxo” bezala “gutxitxo” ere nolabaiteko pleonasmoa da, alegia, “puska” eta “gutxi” hitzek duten balioaren indargarriak.
 - “... eta polikitxo gal ez daitezen bidali beharko ditu” (468-469. lerroak). Lehen agerraldia Jose Vicente Echagarayren (Donostia, 1773-1855) bertsoetakoa da (*OEH*, s.v. *polikitxo*).

*OEH*ko datuen arabera, hapaxak lirateke *flojotxo*, *notiziatxo* eta *feriatxo*, lehen agerraldiak izateaz gain, ez baitira beste inon dokumentatzen. Gutxi dokumentatuak lirateke, berriz, *denboratxo*, hiru agerraldi baino ez dituen; *letratxo*, zeina bi aldiz dokumentatua den Urteren hiztegiko agerraldiaz gain; *kartatxo* formak, aldiz, lau agerraldi ditu euskal corpusean Urteren hiztegiko agerraldiaz gain, gerora Larramendik bere Hiztegi Hirukoitzean (1745) ere jaso zuena; azkenik, *polikitxo* sei agerraldi baino ez dituen Urteren itzulpen lanekoaz gain. Ohikoagoak dira, oster, *puskatxo*, *luzetxo* eta *gutxitxo*, orain ere bezala.

Borracho Burlado eta *Gabonetako Ikuskizunarekin* erkatuz, honako txikigarriak aipa daitezke: Muniberen obrari dagokionez, zazpigarren eszenan, Martinikoren ahotan, “ogi puskatxo bat irabazteko zat” (406. or.); aurrerago, Txantonen ahotan, “nere txapeltxo adobatuba” (488. or.), balio adierazgarrikoa; azkenik, Maritxoren ahotan, “eskarmenta

bitez Txantontxoren buruan” (259. or.), oraingoa emakumezkoen mintzoaren ezaugarria, hain zuzen, goxotasuna adierazteko erabilitako txikigarri adierazkorra baita.

Barrutiaren obran aurkitutakoak honakoak dira: Graziosoaren ahotan: “Beltranikotxo” (146. or.) eta “arixabaltxo gurea” (146. or.) adierazgarriak; “trabatxu andi mortal bat” (152. or.) ironikoa; “azkonarraren azamartxo ekarriko dot menditi, begizkorik eztegiuzen, bulartxoarean isegi”, “amatxok gero egingo deusa” eta “aia semetxoari” adierazgarriak (154. or.). Txatoren ahotan: “Txarlesikotxo laztana”, kalifikatzailea barne duena eta adierazgarria (147. or.). Birjinaren ahotan: “ene laztantxo”, kalifikatzaileari txikigarria atxikita ageri duena eta hau ere adierazgarria (150. or.). Eta, Aseginzororen ahotan: “txikitirriko gurea” (151. or.), hau ere adierazgarria, Jesusen jaiotzaren testuinguruan agertzen dena.

Maiztasunari begiraturik oso esanguratsua da *Grand Tour* obran agertzen diren txikigarriak: izan ere, ugari izateaz landa, balio adierazgarria duten txikigarriak euskal dokumentuetan bilaturik lehen agerraldiak liriateke eta horrek aipagarri egiten du. Txikigarrien erabilera bere adierazkortasunaren eta maiztasunaren arabera ezaugarri bereizgarria izan daiteke emakumearen mintzoan eta *Grand Tour*rean ikusten denaren arabera ere, emakumezko hauek testuinguruak, alegia, gertatzen ari denak berez eskatu gabe txikigarri ugari erabiltzeko joera dute. Horren adibide dira zerrendan aipatu ditudan txikigarri adierazgarriak.

Beste bi obretan ikusitakoak kontuan harturik, gizonaek ere erabiltzeko joera dute, baina oraingoa testuinguruak eraginik (esaterako, Jesus haurraren jaiotza Barrutiaren antzerki-obran) edo hitz egiten duenaren asmoagatik. Halere, emakumezkoek askoz gehiago eta beste balio batzuekin erabiltzen dituztela, hala enfasia emateko, nola goxotasuna edo adierazkortasuna transmititzeko baliatzen dituztelarik.

3.4. Erlijioarekin lotutako esamoldeak

Gorago aipatu interjekzioaz gain, badira laginean zehar erlijioarekin zuzenki loturiko zenbait esamolde. Horiek ezaugarri aipagarritzat hartu ditut garai bateko gizarte kristauean emakumezkoek erabiltzen zituzten esamolde berezi horientatik. Hain zuzen ere, edozeinek bere amona oroiturik gogoratuko du zenbat aldiz aipatzen zituen kristautasunarekin loturiko esamoldeak. Halaber, gizonaek ere esamolde erlijiosoak erabiltzen bazituzten ere, erlijioaren kontrako beste batzuk botatzeko aukera edo askatasuna ere bazuten. Hori bera emakumezkoek eginez gero, ordea, beren irudia ezberdina zatekeen eta errespeturik eta heziketa egokirik ez balute bezala hartuak izango ziren.

Lakoffen (1973) artikuluan ageri zaigu, hain zuzen, emakumezkoek darabilten hizkera mota txikitatik irakatsia eta zuzendua izan dela. Neskatala txiki bat mutilek bezala hitz egiten duenean baztertua izaten da: “If a little girl “talks rough” like a boy, she will normally be ostracized, scolded, or made fun of.” (Lakoff, 1973: 47). Emakumezkoak Euskal Herrian ere erlijioaren transmisiorako bide eta erlijioaren eroaletzat ere hartu izan dira; horregatik erlijioari lotutako hizkera bat erabili dute, gizartean onartuak izateko eta baita haurren hezitzaile diren neurrian, balore batzuen transmisiorako.

Laginean zehar honako erlijiozko esamoldeak ageri dira, guztiak ere D^a M^a Antonia de Atxaranen ahotan: “Jesus, Inazi, Jaungoikoak bihotza jo dizu.” (169-170. lerroak), “Jaungoikoari graziak” (176-177. lerroak) eta “...bere komertzio handiak ekartzen dizkio mundu honetako alde guztietatik Jaungoikoak dakien ondasunak” (251-254. lerroak). Erlijiozko esamolde hauen ondoan, ez da behin ere ez erlijioari egindako kritikarik. Etxeko andreak soilik erabiltzen dituenek, baliteke halako dotorezia edo prestakuntza erlijioso handiago bat duela adieraztea. Era berean, baliteke Altxabarren amaren ezaugarri idiosinkratiko baten isla eman nahi izatea.

3.5. Galdera erretorikoak

Lakoffen hurrengo lanetan proposatu bezala, emakumezkoak asertiboak ez izateko ohiturari lotuta, agintera bezalako egitura sintaktikoak ez dira horren ohikoak beren mintzoan. Haasek (1979) azaldu bezala, asertibotasuna hainbat autorek ikertu dute:

Assertiveness was observed as part of the male stereotype by Kramer (1974b) in her study of cartoon captions. Lakoff (1975) suggested that women’s speech is nonassertive. This concept has been developed by other writers. Kuykendall wrote that “clean, effective vigorous speech and writing is just what women, *qua* women, learn not to produce so as not to appear too assertive and so to offend” [Kuykendall, 1976: 4]. (Haas, 1979: 622).

Asertibotasun hori ekiditeko galdera erretorikoak egitea baliabideetako bat da. Gizonezkoen hizkeraren parte da zuzenean eta itzulingururik gabe hitz egitea. Hori dela eta, aginduak, baieztapen absolutuak eta antzeko egiturak ugariago izango dira gizonezkoengan emakumezkoengan baino. Haasek (1979) azaltzen duen bezala, ikerketen arabera eskoletako mutikoek erabiltzen duten hizkera asertiboagoa da, mehatxuak eta debekuak ere adierazten dituztelako:

Nursery school children also believe that competitive and aggressive language is appropriate for males only, as demonstrated by a study in which boys and girls were asked to ascribe various uttered sentences to a girl or a boy doll (Garcia-Zamor, 1973). Dawe (1934) found that when nursery school children quarreled, boys were assertive by threatening and forbidding more often than girls. (Haas, 1979: 622).

Emakumezkoek babes edo laguntasun gehiago adierazten dute hizkeraren bitartez: “Hirschmann [1974] tested the hypothesis than women are more supportive than men. [...] Limited evidence confirms that males are more assertive and issue more directives; females are often more tentative and supportive”. (Haas, 1979: 623). Ikertzaile hauek diotenarekin lotu dut *Grand Tour* obrako galdera erretorikoen ugaritasuna, dudarik gabe ez-asertiboa izateko asmoarekin lotu beharrekoak. Izan ere, hain testu laburrean bederatzizko galdera erretoriko aurkitu ditut, hiru pertsonaien ahotan, gainera:

- Antoni Jostunaren ahotan: “a, bada, Inazi ez dakizu non dagoen?” (33-34. lerroak), “non egongo da? Baldin jakin nahi baduzu Izarraizko puntara igo ezazu eta handik ikusiko duzu” (38-40. lerroak), “esan biezat, etxeko andrea, ez daukat

- honetan arrazoi?” (306-308. lerroak), “ez da hori ere, bada, gutxitxo?” (413. lerroa),
- D^a M^a Antonia de Atxaranen ahotan: “zer ote dio galai honek? (171. lerroa), “hori zeinek ez daki Inazi?” (268. lerroa), “jesus, Antoni, hori esango zenuke?” (359-360. lerroak),
 - Ignazi Oleagaren ahotan: “piztean dago difikultade guztia, ze behin piztuz gero, atzera bihurtzen omen dira, baina nola uste du?” (203-206. lerroak), “eta uste duzu, Antoni, ez duzula ezer esan? (217-218. lerroak),

4. Ondorioak

Emakumeen mintzoaren azterketari, emakumezkoei dagozkien beste hainbat eta hainbat gai eta kezkarri bezala, garrantzi apalagoa eman zaio orain artean, baina mugimendu sozialek ez ezik, ahozko hizkera aztertzekeo interes modernoak ere hala eraginik azken urteotan ekin zaio. 70eko hamarkadatik heldu zaio interesa, batez ere Lakoffek (1973) emandako bultzadaren eraginez. Euskaraz, ordea, orain artean, alor honi dagokionez, ez da deus ere egin dakidalarik, ez gaurko euskara bizia, ez eta corpus historikoa aztertzekeo.

Azken urteetan joera aldatzen ari den arren, emakumezkoen eguneroko hizkera hizkuntza baliabideen eta ezaugarrien erabilerearen aldetik ez da gizezkoen hizkera bezalakoa. Ahozko hizkera aztertu eta azaldu nahi dugun heinean, emakumezkoen hizkera eta gizezkoena banatzea komenigarria da; izan ere, hiztun maskulinoa hartzen bada eredu unibertsaltzat emakumezkoen hizkera berriro ere ikusgaitasunean erortzen da.

Horregatik, analisi erreal bat egin nahi badugu, ikerlerro hau ere kontuan hartu beharra dago. Ildo hau abiatzekeo lan xume honetarako, beraz, Altzibarren 1772ko *Gran Tour* antzerki lana aztertu dut obrako pertsonaia guztiak emakumezkoak direlako, eta bereziki Lakoff (1973) erabiliz hizkuntza ezaugarrien analisia egin dut, ondoren, Munibe eta Barrutiaren antzerki obrekin erkatuz.

Lakoffek (1973) jadanik igarri zuen emakume eta gizezkoen hizkeren arteko aldeak gutxitzen ari direla; hala ere, azterketa honek erakusten du XVIII. mendean alde handia zegoela, edo behintzat, alde handiz hitz eginarazi ziela Altzibarrek bere pertsonaiei. Garai hartan ere genero eraikuntza bat bazela jakinik eta hizkeran islatzen zela ikusirik, garai hartako emakumezkoen hizkera ezberdina zela ikus daiteke. Horren lekuko dira aurkitu ditudan ezaugarrien erabilera, horien maiztasuna eta hiztunaren helburua kontuan harturik, ezaugarri horiek hartzen duten balioa.

Lakoff (1973) eredu eta gida nagusi izan arren, euskara eta ingelesa hizkuntza ezberdinak izanik, zenbait ezaugarri analitiko kanpo utzi ditut eta, era berean, aipagarriak iruditzen zaizkidan euskarari dagozkion beste ezaugarri batzuk erantsi ditut analisian, nahiz ingelesean horiek ez agertu modu berean konfiguraturik eta Lakoffek ez aipatu. Zehazki honako ezaugarriak aztertu ditut: partikula betegarriak eta interjekzioak, kalifikatzaileak, txikigarriak, erlijioarekin lotutako esamoldeak eta galdera erretorikoak.

Lakoffek (1973) proposatutakoaren haritik, “jesus!” interjekzioa baino ez dut topatu, hala ere, erabilera-maiztasunaren ebidentzia agerikoa da, lagin labur honetan sei agerraldi baititu. Hori dela eta, interjekzio hau emakumezkoen hizkeran euskaraz gehiago agertzen delako ondorioa dut. Honek ez du esan nahi gizonezkoek erabiltzen ez zutenik, Muniberen eta Barrutiaren obran agertu partikula betegarri neutroek adierazi bezala. Ondorio nagusi bezala, *Grand Tourreko* emakumezkoek maiztasun handiarekin erabiltzen dituztela esan daiteke eta horien ondoan ez dagoela esanahi gordineko partikula betegarririk, nahiz azken hori *negativa non sunt probanda* izan.

Kalifikatzaile adierazgarrien inguruan, azpimarratzekoa da Lakoffek aipatu adjektibo adierazgarrien ondoan bestelakoak ere aurkitu ditudala. Hori euskara eta ingelesaren antolamendu ezberdinari dagokio. Balio positiboa eta emozio indartsu bat helarazten dutenez, kalifikatzaile horiek ere adierazgarritzat hartu ditut. Maiztasuna dezente handia da laginean zehar eta Lakoffen iritzia sendotzen dute. Munibe eta Barrutiaren obrei ere erreparatuz ikusten da gizonezkoen ahotan ere kalifikatzaile adierazgarri zenbait agertzen direla. Hala ere, *Borracho Burladoren* kasuan obraren barre eragiteko helburua eta *Gabonetako Ikuskizunaren* kasuan eszenaren testuingurua (haur sortu berriaren testuingurua) eta hizkera poetikoa bide dira, itxura guztien arabera kalifikatzaile mota hauek gizonezkoen ahotan ere ugari agerrarazi dutenak.

Txikigarriei dagokienez, laginean zehar topatu den ugaritasun handia dela eta, azpimarragarria da emakumezkoen hizkeran duten lekua. Hain zuzen ere, baliabide honen maiztasunak egiten du emakumezkoen hizkeraren bereizgarri: emakumezkoek testuinguru anitzetan erabiltzen dituzte txikigarriak, gehienetan txikigarririk eskatzen ez duten testuinguruetan edota ohikoa ez den hitzetan atxikitzen baitituzte. Horren lekuko dira laginean agertu hapaxak eta lehen agerraldiak. Munibe eta Barrutiaren gizonezkoek, berriz, ez dituzte horren ugari erabiltzen eta testuinguruari lotutako txikigarriak ekoizten dituzte oro har.

Erlijioari loturiko esamoldeak ez dira horren ugariak laginean zehar. Hala ere, emakumezkoek erlijioarekiko izan duten atxikimendua, behartua izan ala ez, arrazoi nahikoa izan da emakumezkoek halako esamoldeak gehiago erabiltzeko. Gizonezkoek berriz, erlijioaren aurkako esamoldeak erabiltzeko askatasun handiago izan dute. Bestalde, laginean topatu erlijioarekin lotutako esamoldeak etxeko andrearen ahotan agertzen dira; hori dela eta, pentsa daiteke halako dotorezia edo prestakuntza erlijiosoa handiago bat edota Altzibarren amaren ezaugarri idiosinkratiko bat adieraztea.

Emakumezkoek eman beharreko apaltasunaren eraginez eta asertiboak ez izateko joerarekin loturik, galdera erretorikoak hiru pertsonaien ahotan ugari agertzen direla ikusi dut, berriro ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi gizonezkoek egiten ez dituztenik, baizik eta emakumezkoek ugariago eta beste helburu batekin egiten dituztela.

Filologia ikasgaietan gisa honetako lanak egiteko aukerak ez dira horrenbeste gaur egun; izan ere, hizkuntzaren azterketan interesak askotarikoak izan arren, ez da eguneroko kezka genero femeninorari dagozkion gaiak plazaratzea. Emakumezkoak beste genero batzuen artean, gizarteko ideien ikuspegitik bigarren mailako subjektua den heinean ez

dira haren inguruko azterketak egiten, nahiz onartu beharra dagoen egoera aldatze bidean, aurrerapausoak eman direla eta jadanik halako sentsibilizazio bat dela. Horren ondotik abiatu dira genero femeninoa aztergai duten lan akademikoak. Hala ere, GRAL hau hasiera bat abiatzeko saiakera bat baino ez da, hurrengo azterketetan nola edo hala lagungarri edo baliagarri izan litekeena. Azterketa anitz merezi ditu “emakumezkoen mintzoa” gaiak eta ahozko hizkera azaldu nahi dutenek ere kontuan hartu beharrekoa da.

Gai honek aurrez sekula izan ez dudan ikuspegi bat eman dit eta hainbat galdera sorrarazi dizkit. Izan ere, ez da kasualitatea Lakoffek (1973) antzeman eta frogatu zuen hizkera mota erabiltzea munduko emakumeek, jasaten ditugun betebeharrak guztien artean “ondo” hitz egitea txikitatik erakutsi diguten zerbait baita. Besteak beste, gaia euskarara ekarri nahi izan dut, kosta arren beharrezkoa baita hizkuntzaren azterketan. Kasu honetan XVIII. mendeko antzezlan bat izan dudan arren oinarri, uste dut beste garai batzuetako eta baita gaur egungo emakumezkoen hizkerak ere orain arte baino arreta gehiago merezi duela.

Bibliografia

- Aguinagalde, B. (2007a), “Joaquín de Alcibar-Jaúregui y Acharan (1746-1810) y el grand tour (1772)” <https://www.academia.edu/11337144/Joaqu%C3%ADn_de_Alcibar_Ja%C3%BAregui_y_Acharan_1746_1810_y_el_grand_tour_1772_>.
- Aguinagalde, B., Aldekoa, I. & Ugarte, J. L. (2007b), “Joaquín de Alcibar-Jaúregui y Acharan (1746-1810) y el *grand tour* (1772)”, *Egan* 2007: 1-2, 35-67.
- Altonaga Begoña, B. (2018), “Generoa Antzinako Erregimenean: Manuel Larramendiren ikuspuntua eta bere itzala”, *Sancho el Sabio, Extra 2*, 107-127.
- Ayerbe, M. (2020), “Barrutia, Munibe eta Altzibar”, in Otegi, K. (koord.), *Euskal Literaturaren Antologia 2: Errenazimendutik Ilustraziora*, Bilbo: Euskaltzaindia, 595-630.
- Broadbridge, J. (2003), “An Investigaion into Differences between Women’s and Men’s Speech”, The University of Birmingham Center for English Language Studies, 1-26. <<https://www.birmingham.ac.uk/Documents/college-arts-law/cels/essays/sociolinguistics/JamesBroadbridgeSociolinguisticsAnInvestigationintoDifferencesbetweenWomensandMensSpeech.pdf>> [Kontsulta data: 2020/03/25]
- Haas, A. (1979), “Male and Female Spoken Language Differences: Stereotypes and Evidence”, *Psychological Bulletin* 86: 3, 616-626.
- Haritschelhar, J. (2011), “Siglos XVIII y XIX”, in *Basqueliterature.com*. <<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/klasikoa/XVIII.%20eta%20XIX.%20mendek>> [Kontsulta data: 2020/04/27]
- Klasikoen Gordailua*, <<https://klasikoak.armiarma.eus/>>
- Lakarra, J. (1981), “Barrutiaren edizio kritiko baterako”, *ASJU* 15:1, 121-156.
- Lakoff, R. (1973), “Language and Woman’s Place”, *Language in Society* 2: 1, 45-80.
- Mazidah, K. U. (2013), “Women’s speech features used by characters margaret in *The Iron Lady* movie”, *English Language and Literature Journal* 1: 2, 1-5
- Mitxelena, K., 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia* (15 lib.), Bilbo: Euskaltzaindia. Online bertsio eguneratua: <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>.
- Munibe, F. X., 1907-1909 [1764], *El Borracho burlado* [faksimilea], *RIEV*, 1:4, 383-408; 1:5, 481-496; 2:2, 298-301; 2:4, 564-568; 3:3, 248-260.
- Padilla-Moyano, M., 2016, “*Le Dauphin* itsasontziko gutuneria (1757) edo euskararen historia *behetik*”, in X. Lamikiz, M. Padilla & X. Videgain (arg.), *Othoi çato etchera (Lapurdum-en ale bereziak 2)*, Baiona: IKER, 45-77.
- Regúnaga, M^a A. (2004), *Variación según el género en el habla santarroseña*, Santa Rosa: Universidad Nacional de La Pampako doktore tesia, 6-13.

- Salaberri Muñoa, P. (2002): “Antzerkia testuratu zenekoa” in *Iraupena eta Lekukotasuna. Euskal Literaturaren idatzia 1900 arte*, Donostia: Elkar, 128-134.
- Urgell, B. (2017), “Ahozko tradizioko testuak”, *Euskararen Historia II* irakasgairako prestatutako lan argitaragabea, Gasteiz: UPV/EHU.
- Urgell, B. (2019), “Bizenta Mogel ez dago bakarrik, baina oso bakarrik dago: generoaren irudikapena Euskal Filologian”, *Genero irakurketen lehen topaketak. Maskulinitatea eta feminitateak artean* izenburudun jardunaldietan (The Victoryan Society-k antolatua; UPV/EHUren Gasteizko Letren Fakultatean, 2019/02/05) aurkeztutako lan argitaragabea.